**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2013ko IRAILAK 24 / 24 - SETIEMBRE - 2013**

**TOKIA / LUGAR:** SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 24/09/2013

**HASIERA / INICIO:** 17:00 horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
2. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
3. Alkateordea, Don Andoni Iruarrizaga Amantegi jauna
4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra **andrea**
6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiolagarai jauna

Don Juan Ignacio Martínez Orea jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)**
Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Doña Arrate Elkoro Zengotitabengoa andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE)**
Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna
Doña Idoia Agorría Martínez andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)**
Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)**
Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2013KO EKAINAREN 18KO ETA 2013KO UZTAILAREN 23KO OHIKOAK.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2013ko ekainaren 18ko eta 2013ko uztailaren 23ko ohikoak hain zuzen ere.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: 2013ko ekainaren 18ko aktaren inguruan zerbait esateko?

Bozketa egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak gehiengoaren botoarekin, EAJ/PNV-ko Martinez Orea jaunaren abstentzioarekin, ez baitzen aipatutako bileran egon, **ONARTU EGITEN DU 2013ko ekainaren 18ko Osoko Bilkuraren ohiko akta.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: 2013ko uztailaren 23ko aktaren inguruan zerbait esateko?

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: 51. orrialdean ipintzen du "Udaleko osoko bilkurak ezetsi egiten du mozioaren testua" eta 11 boto izan zituen, beraz, "onetsi" izango da eta ez "ezetsi".

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Agiri originalean zuzenduta dago, dagoeneko.

Bozketa egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2013ko uztailaren 23ko Osoko Bilkuraren ohiko akta.**

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES, CORRESPONDIENTES A LAS ORDINARIAS DE 18 DE JUNIO Y 23 DE JULIO, AMBAS DE 2013.**

DADA LECTURA a los borradores de las Actas de las sesiones anteriores, correspondientes a las Ordinarias de 18 de Junio y 23 de Julio, ambas de 2013.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: ¿Algo que señalar respecto al acta del 18 de junio de 2013?

Previa votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por mayoría, con la abstención del Concejal Sr. Martinez Orea (EAJ/PNV) dada su inasistencia a la sesión, **APRUEBA** el **Acta** del **Pleno Ordinario** de **18 de Junio de 2013.**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: ¿Y respecto al acta del 23 de julio de 2013?

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: En la página 51 se indica que el Pleno del Ayuntamiento rechaza el texto de la moción, cuando lo cierto es que obtuvo 11 votos, por lo que debería decir "aprueba" y no "rechaza".

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: En el documento original está ya corregido.

Previa votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el **Acta** del **Pleno Ordinario** de **23 de Julio de 2013.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Kasu honetan ez dago batzordeetatik aparte, berri emateko gauza berezirik. Bakarrik gogoraraztea zuen eskura daudela hilabete honetan eta abuztuan sinatutako Dekretu guztiak.

* Kontuhartzaile Ordea **Velasco Perez andreak**: Aurrekontuaren exekuzioa 2013ko lehenengo sei hilabetean. Informazioa dakargu Bizkaiko Lurralde historikoaren toki erakundeen aurrekontu-arautegia arautzen duena kontuan izanda.

Aurrekontua luzatu egin dela kontuan izanik, hiru sarreren exekuzio maila, 2013ko ekainaren 30ean, %53,78koa izan da; portzentaje honetatik %76,51 ohiko diru-sarrerei dagokie eta %1,69 gutxiago kapitaleko diru-sarrerei.

Gastuari dagokionez, exekuzio maila %36,22koa izan da; honetatik ohiko gastua %44,34koa izan da eta kapitalekoa %12,91.

Urtea aurrera doan neurrian ikusiko dugu aldatuz joango dela diru-sarreren eta gastuen exekuzio maila.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Dena dela, honen berri Ogasun batzordean izan genuen edo Kontu Batzordean, eta dokumentazioa zinegotzi guztiek daukate ikusgai zerbitzu ekonomikoetan.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

***HIRU.- 2012KO KONTU OROKORRAREN KITAPENA ONARTZEA. (KONTU BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENA DUENA 2013KO IRAILAREN 11KOA).***

*Kontu Batzorde Bereziaren Batzordearen 2013ko irailaren 11koa, irizpenaren berri ematea da:*

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS.**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: En este caso no hay nada especial que reseñar, aparte de la información ya aportada en las diferentes comisiones. Únicamente recordar que todos los Decretos firmados durante este mes y en agosto se encuentran a vuestra disposición.

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: Ejecución presupuestaria durante el primer semestre de 2013. Aportamos información en consideración de lo establecido por la normativa presupuestaria de las entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Teniendo en cuenta que se ha producido una prórroga presupuestaria, el nivel de ejecución de los ingresos a 30 de junio de 2013 ha sido de un 53,78 %, del cual un 76,51 % corresponde a ingresos corrientes y un 1,69 % menos a ingresos de capital.

En cuanto al gasto, el nivel de ejecución ha sido del 36,22 %, del cual un 44,34 % corresponde al gasto habitual y un 12,91 % al gasto de capital.

Según vaya avanzando el año, se irán produciendo cambios en el nivel de ejecución, tanto de los ingresos, como de los de gastos.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: De todas formas, ya se informó de todo ello en la Comisión de Hacienda o en la Comisión de Cuentas, y toda la documentación al respecto se encuentra a disposición de todos los concejales en el Departamento de Servicios Económicos.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

***TRES.- APROBACIÓN DE LA LIQUIDACIÓN DE LA CUENTA GENERAL 2012. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS DE 11 DE SETIEMBRE DE 2013).***

*Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Especial de Cuentas de 11 de Septiembre de 2013, del tenor siguiente:*

*"Kontu orokorraren eraketa hurrengo hau da: egoera-balantzea, galera eta irabazien kontua, txostena eta udalaren, bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoen aurrekontuaren kitapena; honek guztiak, erakunde publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzieroa, aurrekontuena eta ondare-kudeaketaren ikuspegia ematen du.*

*Azken finean, aurrekontuaren kitapenaren kontabilitatearen isla da.*

*Toki Erakundeen Aurrekontuen Foru Arauak ezartzen duenaren arabera, 2012ko Kontu Orokorrak, Kontu Berezien batzordearen onarpena behar du; halaber, BAOn argitaratu eta hurrengo 15 egunetan jendaurrean egongo da ikusgai, herritarrek, beraien oharrak eta alegazioak aurkeztu ditzaten. Behin epea bukatuta, egon daitezkeen alegazioekin Kontu Berezien batzordetik pasatu behar da informe berri bat egiteko eta, hala balegokio, Osoko Bilkurara eramateko bertan onartua izan dadin.*

*Ekainaren 26ko Kontu Berezien batzordeak informe bat egin zuen; uztailaren 3ko BAOn argitaratu zen eta, ez zenez inolako alegaziorik aurkeztu, berriz ere batzorde honetan aurkezten da informe berri bat egin eta Osoko Bilkurara eramateko bere onarpenerako.*

*Alegaziorik ez denez aurkeztu, ez da beharrezkoa informe berri bat egitea, hau da, aurretik zegoen informea nahikoa da.*

*Bozkatu egiten da hurrengo emaitzak lortuz:*

*Alde: 4, PNV (4).*
*Kontra: 0.*

*Abstentzioak: 5, Bildu (1); PSE-EE (PSOE) (2); PP (1) eta Aralar (1).*

*2012ko Kontu Orokorra onartzeko proposamena Osoko Bilkurara eramango da."*

KONTU BATZORDE Bereziaren, 2013ko ekainaren 26ko, aldeko irizpena izan eta gero, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 127. zenbakian argitaratu zen, 2013ko

*"La cuenta general esta formada por el balance de situación, Cuenta de Perdidas y Ganancias, Memoria y Liquidación del Presupuesto del Ayuntamiento y sus organismos autónomos y sociedades publicas, y lo que nos da es una visión de la gestión económico-financiero, presupuestaria y patrimonial del ente público.*

*Viene a ser un reflejo contable de la liquidación del Presupuesto.*

*La Norma Foral Presupuestaria de las Entidades Locales establece que la Cuenta General debe ser sometida a informe de esta Comisión Especial de Cuentas la aprobación de la Cuenta General del ejercicio de 2012, poniéndose a exposición pública durante 15 días a partir de la publicación en el BOB, para la presentación por los ciudadanos de observaciones, alegaciones y reparos, una vez transcurrido el plazo y con las alegaciones, si las hubiera, volvería a pasar por la Comisión Especial de Cuentas para la emisión de un nuevo informe y elevar al Pleno para la aprobación si procediera.*

*En Comisión Especial de Cuentas de 26 de junio se emitió informa por esta Comisión y finalizado el período de exposición tras haberse publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia en fecha 3 de julio, sin haberse presentado alegación ni observación alguna, nuevamente se presenta a esta Comisión para la emisión de nuevo informe, sometiéndose al Pleno para su aprobación.*

*Al no haberse presentado alegaciones, no es necesario emitir un nuevo informe, se valida el anterior realizado,*

*La Presidente somete a dictamen de esta Comisión dando el siguiente resultado:*

*Votos a favor: 4, PNV (4).*
*Votos en contra: 0.*
*Abstenciones: 5, que corresponden a Bildu (1); PSE-EE (PSOE) (2); PP (1) y Aralar (1).*

*Elevándose a Pleno de la Corporación propuesta de aprobación de la Cuenta General del año 2012."*

RESULTANDO que, previo informe favorable de la Comisión Especial de Cuentas de fecha 26 de Junio de 2013, se publicó el correspondiente Anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 127, correspondiente al 3 de

ekainaren 26an hain zuzen ere. Espedientea jendaurrean erakutsi zen 15 eguneko epean, erreklamazioak, oharrak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

KONTUAN IZANDA aipatutako epearen barruan EZ zela erreklamaziorik, oharrik edo iradokizunik aurkeztu udal honetan.

* Kontuhartzaile ordea **Velasco Perez andreak**: Kontu orokorrean, batetik, aurrekontuaren likidazioa sartzen da eta, bestetik, udalaren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen ondare-egoera ere sartzen da, 2012ko abenduaren 31 harturik erreferentzia data moduan.

Ekainaren 26ko Kontu Batzorde berezian, 2012ko Kontu Orokorraren berri eman zen eta batzordeak irizpena eman zuen.

Bizkaiko lurralde historikoko toki udalbatzen aurrekontuen foru arauak ezartzen duen arabera, uztailaren 3an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jendaurrean erakutsi zen hurrengo 15 egunean.

Ez zen erreklamaziorik aurkeztu, gero, irailaren 11n berriro aurkeztu zen batzordean eta honek irizpena eman zuen, Osoko Bilkurara ekartzen den irizpena, hain zuzen ere. Durangoko udaleko Kontu Orokorra 2012ko abenduaren 31n, honakoa da:

Udalaren fondoak: 74.099.763,65 eurokoa da; hauetatik 53.785.619,71 euro Ondareari dagozkio eta 73.814.126,31 euro metatutako irabaziei.

Irabaziak aipatzen direnean ez dugu esan nahi irabazi horiek udalaren kutxan daudela, esan nahi dugu ondarean, kaleetan eta horrelakoetan daudela.

Beste alde batetik, 2012ko abenduaren 31ko dataz, 44.447.097,97 euro dugu guztiok erabiltzeko ondare moduan, plaza, bide publiko, parke eta horrelakoak.

Julio de 2013, sometiendo el expediente a información pública por espacio de 15 días, a efectos de reclamaciones, reparos y observaciones.

CONSIDERANDO que durante el expresado período NO se ha presentado en este Ayuntamiento reclamación ni observación alguna contra el mismo.

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Pérez**: En primer lugar, las Cuentas Generales abarcan tanto la liquidación presupuestaria, como el estado patrimonial del Ayuntamiento, organismos autónomos y sociedades públicas, a 31 de diciembre de 2012.

En la Comisión Especial de Cuentas del pasado 26 de junio, se informó acerca de las Cuentas Generales de 2012, sobre lo cual ya dio dictamen la Comisión.

En virtud de lo establecido por la Norma Foral sobre las Corporaciones Municipales del Territorio Histórico de Bizkaia, dicha información fue publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia el 3 de julio, y estuvo expuesta al público durante los siguientes 15 días, plazo durante el cual no se presentó reclamación alguna.

Finalizado el plazo de exposición pública, las Cuentas Generales fueron nuevamente presentadas en la Comisión, la cual dio este dictamen que se presenta al pleno de hoy. He aquí, por tanto, las Cuentas Generales del Ayuntamiento de Durango a 31 de diciembre de 2012:

Fondos del Ayuntamiento: 74.099.763,65 euros, de los cuales 53.785.619,71 euros corresponden a patrimonio y 73.814.126,31 euros a las ganancias acumuladas.

No obstante, se debe especificar que esas ganancias no se encuentran en las arcas municipales, sino que están invertidas en el patrimonio, calles etc.

Por otro lado, a 31 de diciembre de 2012 se dispone de 44.447.097,97 euros para su uso general en forma patrimonio en plazas, vías públicas, parques etc.

* <u>**Maeztu Perez jaunak (Aralar)**</u>: Datu bat gehitu nahi dugu. Uste dugu garrantzitsua dela datu hori eta gai horretaz ere eztabaidak egon dira. Kitapen hau egiterako orduan Durangoko udalak daukan zorra 7.939.000 eurokoa da.

Gaia bozkatu ondoren, emaitza hauxe da:

- Aldeko botoak: HAMAIRU, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralarrekoa.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **2012ko Kontu Orokorra ONARTU EGITEN DU**, dagokion espedientean dagoen dokumentazioaren bat etorriz.

* Concejal <u>**Sr. Maeztu Perez (Aralar)**</u>: Queremos añadir un dato. Consideramos que se trata de un dato importante, el cual ha sido tema de debate. Y es que no debemos obviar que a la hora de efectuar esta liquidación, el Ayuntamiento de Durango mantiene una deuda de 7.939.000 euros.

Sometido el asunto a votación, se obtiene el siguiente resultado:

- Votos a favor: TRECE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: OCHO, 6 de Bildu y 2 del Partido Popular.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** la **CUENTA GENERAL DEL EJERCICIO 2012**, conforme a la documentación obrante en el expediente de su razón.

**LAU.- DURANGO UDALERRIA “HIRI ADEITSUAK ADINEKOEKIN” PROGRAMARI ATXIKITZEARI BURUZKO PROPOSAMENA. (GIZARTE EKINTZAKO BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2013KO IRAILAREN 17KOA).**

Gizarte Ekintzako Batzordearen 2013ko irailaren 17ko irizpenaren berri ematea:

*“<u>HIRI ADEITSUAK ADINEKOEKIN PROGRAMA</u>*

*Gai hori aztertu da Gizarte Ekintzako maiatzaren 22ko eta irailaren 3ko batzordeetan.*

*Batzorde horietan programa aurkeztu egin da. Batzorde honetan programaren labur-*

**CUATRO.- PROPUESTA DE ADHESIÓN DEL MUNICIPIO DE DURANGO AL PROGRAMA DE “CIUDADES AMIGABLES CON LAS PERSONAS MAYORES”. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ACCIÓN SOCIAL DE 17 DE SETIEMBRE DE 2013).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Acción Social en sesión de 17 de Setiembre de 2013, del tenor siguiente:

*“<u>PROGRAMA DE CIUDADES AMIGABLES CON LAS PERSONAS MAYORES</u>*

*Este asunto ha sido sometido a estudio en las comisiones de Acción Social de fechas 22 de mayo y 3 de septiembre.*

*En las mismas se ha presentado el programa.*

*pena egin da osoko bilkurara eramateko helburuarekin, gero aurrera eramateko.*

*En esta comisión se realiza un resumen del mismo con la finalidad de elevar a pleno su realización.*

*"Hiri Adeitsuak Adinekoekin" nazioarteko proiektu bat da, eta mundu-mailan gertatzen diren bi joera demografikoren aurrean hiriei laguntzea du helburu: alde batetik, biztanleria azkar zahartzen ari dela, eta bestetik, urbanizazioa gero eta handiagoa dela.*

*"El Programa Ciudades Amigables con las Personas Mayores es un proyecto internacional para ayudar a las ciudades a prepararse para dos tendencias demográficas mundiales: el envejecimiento rápido de la población y la urbanización creciente.*

***DEFINIZIOA***

*Adinekoekin adeitsua den hiri baten helburuak dira zahartze aktiboa sustatzea partehartzearen bitartez, osasun-baldintzak hobetzea eta inguruneen segurtasuna handitzea, eta azken finean, adinekoen bizi-kalitatea hobetzea, eta ondorioz, baita herritar guztiona ere. Horrez gain, hirietan adinekoen ikuspegia kontuan hartzea da asmoa, hartara, adinekoekin adeitsuagoak izateko zer alderdi eta nola hobetu behar diren identifikatzeko.*

***DEFINICION***

*Una ciudad amigable con las personas mayores es aquella que tiene como objetivo impulsar el envejecimiento activo de éstas mediante la participación, la mejora de las condiciones de salud y el aumento de la seguridad de los entornos, a fin de incrementar la calidad de vida de las personas de edad en particular y, en consecuencia, de toda la ciudadanía. Su propósito es ayudar a las ciudades a mirarse desde la perspectiva de las personas mayores, para identificar en qué aspectos y de qué manera pueden ser más amigables con éstas.*

***AURREKARIAK***

*"Hiri Adeitsuak Adinekoekin" proiektua 2005ean Rio de Janeiron egindako XVIII. Gerontologia Mundu Biltzarrean jaio zen, eta OMEko A. Kalache-k eta L. Plouffe-k garatu zuten mundu mailan, 2006. urtean.*

***ANTECEDENTES***

*El proyecto "Ciudades amigables con las personas mayores" fue concebido en el XVIII Congreso Mundial sobre gerontología celebrado en Río de Janeiro, año 2005, y desarrollado globalmente por A. Kalache y L. Plouffe de la O.M.S. en el año 2006.*

***HELBURUAK***

*Proiektu honen bidez, **udalerriko adinekoei parte hartzeko esparru bat** eman nahi zaie, parte-hartze aktiboa eta osasungarria ahalbidetzen duten inguruko elementuak zein diren zehazteko. Helburu hori lortzeko, OMEren "Hiri Adeitsuak Adinekoekin" programarari atxiki zaizkion hiri adeitsuen "kontrol-zerrenda" bete daiteke. Izan ere, zerrenda horren xedea da zortzi atali erreparatuta hiri adeitsuak izan behar dituen ezaugarriak betetzea.*

***OBJETIVOS***

*Este proyecto pretende dar un **marco de trabajo participativo a las personas mayores** del municipio para determinar los principales elementos del entorno que facilitan un envejecimiento activo y saludable. Este objetivo se puede lograr siguiendo la "lista de control" de las ciudades amigables con las P.M. de la O.M.S. La finalidad de la lista de control es evaluar a través de ocho apartados, el cumplimiento de una ciudad con las características de ciudad amigable.*

*1. Aire zabaleko espazioak eta eraikinak.*
*2. Garraioa.*
*3. Etxebizitza.*
*4. Gizarteak parte-hartzea.*
*5. Errespetua eta gizarteratzea.*
*6. Hiriaren parte-hartzea eta enplegua.*
*7. Komunikazioa eta informazioa, eta*
*8. Gizarte eta osasun zerbitzuen laguntza.*

*Adinekoekin adeitsua den hiri batek bere egiturak eta zerbitzuak berrantolatu egiten ditu adinekoen ikuspegia aintzat hartuta, eta adinekoak eurak informazio-iturri gisa hartuta.*

*Honako hauek dira proiektuaren helburuak:*

- *Udalerriak adeitsuagoak izateko konpromisoa hartzea, adinekoek erkidegoari mesede egiteko duten potentziala aprobetxatze aldera.*

- *Hirietan adinekoen ikuspegia kontuan hartzea, adinekoekin eurakin "adeitsuagoak" izateko zer eta nola hobetu behar den identifikatzeko.*

- *Erkidego adeitsu baten ezaugarri nagusiak sustatzea, zahartze aktiborako aukerak emateko.*

- *Zahartzaroaren eta zahartzearen inguruko irudi negatiboak saihestea.*

***ADINEKOEKIN ADEITSUAK DIREN HIRIEN SAREAN IZENA EMATEA ETA PARTE HARTZEA***

*Adinekoen ikuspegia kontuan hartzeko, behar-beharrezkoa da politikako eta herritarren zerbitzuetako hainbat alorretan ekintzak koordinatzea. Hortaz, Adinekoekin Adeitsuak diren Hirien Sarean parte hartzeko, ezinbestekoa da udal-gobernuaren babesa, eta honako pauso hauei jarraitzea:*

*1. Espacios al aire libre y edificios.*
*2. Transportes.*
*3. Vivienda.*
*4. Participación social.*
*5. Respeto e integración social.*
*6. Participación cívica y empleo.*
*7. Comunicación e información, y*
*8. Apoyo de la comunidad y servicios de salud.*

*Una ciudad amigable con las personas mayores reorganiza sus estructuras y servicios desde la perspectiva de las personas mayores, constituyendo éstas la principal fuente de información.*

*Objetivos del proyecto:*

- *Lograr que los municipios se comprometan a ser más amigables con objeto de aprovechar el potencial que representan las personas de edad para la comunidad.*

- *Ayudar a que las ciudades se miren desde la perspectiva de las personas mayores, a fin de identificar en qué aspectos y de qué manera pueden ser más "amigables" con éstas.*

- *Promover las características fundamentales de una comunidad amigable para impulsar una oportunidad de envejecimiento activo.*

- *Combatir las imágenes negativas sobre la vejez y el envejecimiento.*

***INSCRIPCIÓN Y PERTENENCIA A LA "RED DE CIUDADES AMIGABLES CON LAS PERSONAS MAYORES"***

*La adopción de esta perspectiva implica coordinar acciones en distintas áreas de la política y los servicios ciudadanos para que se refuercen mutuamente. Por tanto, un proyecto de esta naturaleza debe contar con el respaldo del gobierno municipal para realizar la inscripción en "la red internacional de ciudades amigables con las personas mayores". Incluye las siguientes acciones:*

- *Dagokion inprimakia betetzea.*
- *Alkateak eta udal-administrazioak gutun bat idaztea, Sareak duen etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa berretsiz.*
- *Proiektuari ekitea, lau faseak garatuta.*

*Honako hauek dira Udalaren konpromisoaren erakusgarriak:*

- *"Ageing research" Gerontologia Ikerketa Taldearen eta Durangoko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmen berezia Durangoko adinekoen jabekuntza pertsonal eta ikerketa eta ekintza parte-hartzailerako proiektua garatzeko.*
- *Adineko lagun talde baten parte-hartzea, proiektuaren talde eragile gisa.*

***PROIEKTUAREN GARAPENA: FASEAK ETA OSAGAIAK***

***LEHENENGO FASEA (1-2 urte)***

- *Mekanismoak sortzea, adinekoek Sarearen zikloan parte har dezaten lortzeko.*
- *Hasierako ebaluazioa, hiria adinekoei nola doitzen zaien aztertzeko.*
- *Hiri osoan aplikatzeko hirurteko ekintza-plan bat egitea, hasierako ebaluazio horren emaitzak kontuan hartuta.*
- *Egindako aurrerapausoak hautemateko adierazleak identifikatzea.*

- *Rellenar el formulario correspondiente.*
- *Enviar una carta del alcalde y la administración municipal en la que manifiesten su compromiso con el ciclo de mejora continua que caracteriza a la Red.*
- *Iniciar el proyecto desarrollando las cuatro fases.*

*Para la puesta en marcha del proyecto se cuenta con:*

- *La colaboración del equipo de investigación en gerontología de la universidad de Deusto, a través de la firma del "Convenio específico de colaboración entre el equipo de investigación en gerontología -ageing research-" y el Ayuntamiento de Durango para el desarrollo del "proyecto de investigación-acción participativa con personas mayores de Durango en el ámbito del empoderamiento personal y comunitario".*
- *La participación de un grupo determinado de personas mayores como principales agentes del mismo.*

***DESARROLLO DEL PROYECTO: FASES Y COMPONENTES***

***FASE UNO (1-2 años)***

- *Creación de mecanismos para lograr la participación de las personas mayores en el ciclo de la Red.*
- *Evaluación inicial de la adaptación de la ciudad a las personas mayores.*
- *Formulación de un plan de acción trienal para toda la ciudad, basado en los resultados de esa evaluación.*
- *Identificación de indicadores para seguir los progresos realizados.*

***BIGARREN FASEA (3-5 urte)***

*OMEri hiru urterako ekintza-plan bat aurkeztea.*

*Lehenengo fasea bete denean, eta Sareari atxiki zaionetik bi urte igaro baino lehen, hiriak ekintza-plana aurkeztu behar du, OMEk azter eta onar dezan. Behin haren oniritzia jasota, hiru urteko epea izango du ekintza-plana gauzatzeko.*

***HIRUGARREN FASEA***

*Aurrerapausoak ebaluatzea (bosgarren urte bukaeran).*

*Hirian egindako aurrerapausoei buruzko txostena aurkeztuko zaio OMEri, erakunde horrek ebalua dezan.*

***LAUGARREN FASEA***

*Etengabeko hobekuntza.*

*Hasierako ekintza-planean jasotakoen artean hobekuntzak izan direla erakusten duten froga sinesgarriak badaude, hiria etengabeko hobekuntza-fasera pasako da. Hau da, hiri adeitsuak bost urterako plana egingo du, eta aurrerantzean ere berdin jardungo du, hau da, bost urterik behin plan bat egingo du, etengabeko hobekuntza bermatze aldera. Hiriak Sareko kide izaten jarraitu ahal izango du, baldin eta hobetzeko ekintza-planak egiten jarraitzen badu.*

Arloaren Presidente Goiztidi Diazek bozkatzea proposatu du, Durangoko Udalerria *OMEk* babestutako "Hiri Adeitsuak Adinekoekin Sarean" izena ematea eta parte izatea.

Bozkatu ondoren emaitza hau lortu da:

***FASE DOS (3-5 años)***

*Presentación de un plan de acción a la O.M.S. que tendrá un plazo de ejecución de tres años.*

*Una vez completada la primera fase, y nunca más de 2 años después de la adhesión a la Red, las ciudades presentarán su plan de acción para que sea examinado y aprobado por la OMS. Una vez obtenida esta aprobación, las ciudades tendrán 3 años para ejecutar su plan.*

***FASE TRES***

*Evaluación de los progresos (final del quinto año).*

*La ciudad presentará a la O.M.S. un informe sobre los progresos realizados que será evaluado por dicho organismo.*

***FASE CUATRO***

*Mejora continua.*

*Si hay pruebas convincentes de que se han hecho progresos con respecto al plan de acción inicial, las ciudades pasarán a una fase de mejora continua. Las ciudades amigables serán invitadas a elaborar un nuevo plan de cinco años, y así sucesivamente en una mejora continua de la ciudad. Las ciudades podrán seguir perteneciendo a la red mientras se comprometan a realizar nuevos ciclos de ejecución de planes de acción de mejora."*

*La Presidenta del área Goiztidi Díaz eleva a votación la propuesta de inscripción y pertenencia del municipio de Durango a la "Red de ciudades amigables con las personas mayores" patrocinado por la OMS.*

*Tras la votación se obtiene el siguiente resultado :*

- Aldeko botoak: ; 8 EAJ-PNV, 2 PSE-EE (PSOE), 1 Bildu, 1 Aralar eta 1 PP.
- Kontrako botoak: Bat ere ez.
- Abstentzioak: Bat ere ez.

Batzordeak Osoko Bilkurara eraman du Durango udalerria "Hiri adeitsuak adinekoekin" programari atxikiko zaion ala ez proposamena."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gai honi buruz bi batzordetan hitz egin dugu, badakizu OMEk, Osasunaren Munduko Erakundeak, "uri adeitsuak adinekoekin" ekimena sartu duela hiri adeitsuen nazioarteko sarearen barruan. Deustuko gerontologiako ikerkuntza taldearekin batera egingo den proiektu bat da eta, gaur hona dakarkizueguna zera da, Durangoko uria hiru adeitsuen nazioarteko sare horretan sartzearen onarpena aurrera eramatea.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Pozgarria da atxikipen hauek jasotzea; izan ere, ekimen honi esker, lortu nahi dugun hiria diseinatzeko eta egituratzeko prozesuan parte hartu ahal izango dute gure nagusiek, eta, aldi berean, haien premiak balioetsi ahal izango ditugu guk. Partaidetza-prozesu bat irekiko da, eta oso aberasgarria iruditzen zaigu.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Nabarmendu eta eskerrak eman nahi dut azkeneko bi batzordetan Alderdi guztien aldetik egon den adostasunagatik.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, **Durango udalerria** "***Hiri adeitsuak adinekoekin***" programari **atxikitzea** erabaki du, halaber, Aitziber Irigoras Alberdi Alkateari (EAJ/PNV) eskumena ematen dio formalitatu dezan.

- *Votos a favor: 8; 3 EAJ-PNV, 2 PSE-EE (PSOE), 1 Bildu, 1 Aralar y1 PP.*
- *Votos en contra: Ninguno.*
- *Abstenciones: Ninguno.*

*Esta Comisión eleva al pleno de la Corporación la propuesta de adhesión de nuestro municipio al programa de "Ciudades amigables con las personas mayores"*.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Ya se ha hablado sobre este tema en dos comisiones; así, pues, como sabréis, la OMS, la Organización Mundial de la Salud está desarrollando una iniciativa llamada "Ciudades amigas de los mayores" dentro de la red internacional de ciudades amigas. Se trata de un proyecto que será desarrollado junto con el equipo de investigación gerontológica de Deusto, y lo que hoy se presenta al Pleno es la aprobación de la inclusión de Durango en dicha red internacional de ciudades amigas.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Nos alegramos de que se produzca esta adhesión y más cuando esto va a permitir que las personas mayores puedan participar en lo que es el diseño y el modelo de ciudad que queremos, a su vez, a nosotros nos va a permitir evaluar las necesidades que tienen; se va a abrir un proceso participativo y nos parece muy enriquecedor.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Quisiera resaltar la buena disposición de todos los Grupos en las últimas dos comisiones, y agradecer el acuerdo alcanzado.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda la **adhesión del municipio de Durango** al programa de "***Ciudades amigables con las personas mayores***", facultándose a la Alcaldesa-Presidenta, Doña Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV) para su formalización.

**BOST.- BIDEZKOA BALITZ, 2013/2014 IKASTURTEKO ZAHARTZE AKTIBORAKO IKASTAROEN PREZIO PUBLIKOAK ONARTZEA ETA ARAUTZEA. (GIZARTE EKINTZAKO BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2013KO IRAILAREN 17KOA).**

Gizarte Ekintzako Batzordearen 2013ko irailaren 17koa, irizpenaren berri ematen da:

*"ZAHARTZE AKTIBORAKO IKASTAROEN PREZIOA (2013-2014).*

*Gai hori aztertu da Gizarte Ekintzako azken batzordean.*

*Batzorde horretan aurkeztu egin dira 2013/2014 ikasturterako zahartze aktiborako ikastaroak.*

*Batzordeko zinegotziek programa aztertu dute eta bi ikastaro mota bereizi dituzte:*

*1.- Ikastaro luzeak, urritik maiatza-ekainera arte.*

- *Psikomotrizitate ikastaroa.*
- *Oroimena suspertzeko ikastaroa.*
- *Jarrera orekatzeko gimnasia tailerra.*
- *Irakurmena eta idazmena hobetzeko tailerra.*
- *Kontrolaren gaineko ikastaroa eta estutasunaren erabilera.*
- *Euskara tailerrak.*
- *Bidaiatzeko ingeles tailerra.*
- *Antzerki tailerra.*
- *Literatura-jokoen tailerra.*
- *Xake ikastaroa.*

**CINCO.- APROBACIÓN Y REGULACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS PRECIOS PÚBLICOS DE LOS CURSOS DE ENVEJECIMIENTO ACTIVO PARA EL CURSO 2013/2014. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ACCIÓN SOCIAL DE 17 DE SETIEMBRE DE 2013).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Acción Social en sesión de 17 de Setiembre de 2013, del tenor siguiente:

*"PRECIO CURSOS PARA EL PROGRAMA DE ENVEJECIMIENTO ACTIVO 2013-2014*

*Este asunto ha sido sometido a estudio en la última Comisión de Acción social.*

*En la misma se ha presentado la propuesta de los cursos de envejecimiento activo para el curso 2013-2014.*

*El programa ha sido estudiado por los y las concejales de la comisión; se destacan dos tipos de cursos:*

*1.- Cursos largos cuya duración es de octubre a mayo – junio.*

- *Curso de Psicomotricidad.*
- *Curso de entrenamiento de la memoria.*
- *Taller de gimnasia de equilibrio postural.*
- *Taller de mejora en lectura y escritura.*
- *Curso sobre el control y manejo de la ansiedad.*
- *Cursos de Euskera.*
- *Curso de ingles para viajar.*
- *Taller de teatro.*
- *Taller sobre juegos literarios.*
- *Curso de ajedrez.*

*2.- <u>Ikastaro laburrak</u>, hiruhilekoak:*

- *Areto-dantzen ikastaroa.*
- *Masaje suspertzailea eta aromaterapia tailerra.*
- *Xaboia artisau erara egiteko ikastaroa.*
- *Irakurketa erraza lantzeko tailerra.*
- *Internet ohiko kudeaketak egiteko.*
- *Argazkigintza digitala ikastaroa.*
- *Belarren erabilera etxean.*
- *Internet eta sare sozialak.*
- *Ondo jan, hobeto bizitzeko tailerra*

*Proposatu da urte osorako ikastaroen prezioa 12 eurokoa izatea eta ikasturte laburrena 6 eurokoa.*

*Era berean, ikastaroak ordaintzeko salbuespenak proposatu dira:*

- *696 euro baino gutxiagoko pentsioa duten nagusiak.*
- *870 euro baino gutxiagoko pentsioa duten senar-emazte edo bikoteak.*

*Arloaren Presidente Goiztidi Diazek bozkatzea proposatu du, bai 60 urtetik gorako udalerriko nagusientzako zahartze aktiborako 2013/2014ko ikastaroei prezio publikoa ezartzea, bai prezio horiek ordaintzetik salbuetsita gelditzeko baldintzak:*

*Bozkatu ondoren emaitza hau lortu da:*

*Aldeko botoak: 5; 3 EAJ-PNV eta 2 PSE-EE (PSOE).*
*Kontrako botoak: Bat ere ez.*
*Abstentzioak: 2; 1 Bildu eta 1 Aralar.*

*2.- <u>Cursos cortos</u>, de duración trimestral:*

- *Curso de bailes de salón.*
- *Curso de masaje revitalizante y aromaterapia.*
- *Curso de elaboración artesanal de jabones.*
- *Taller de lectura fácil.*
- *Internet en las gestiones diarias.*
- *Curso de manejo de cámara de fotos digital.*
- *La herboristería en casa.*
- *Internet y las redes sociales.*
- *Taller de comer sano y vivir mejor*

*Se propone que el precio de los cursos anuales sea de 12 € y 6€ el de los cursos cortos.*

*Asimismo se propone la exención en el precio de los cursos en las siguientes condiciones:*

- *Persona mayor con una pensión inferior a 696€.*
- *Matrimonio o pareja con una pensión inferior a 870€.*

*La Presidenta del área Goiztidi Díaz eleva a votación la propuesta de precio público de los cursos de envejecimiento activo 2013-2014 para las personas mayores de 60 años de nuestro municipio, así como las condiciones de exención:*

*Tras la votación se obtiene el siguiente resultado:*

*Votos a favor: 5; 3 EAJ-PNV y 2 PSE-EE (PSOE).*
*Votos en contra: NINGUNO.*
*Abstenciones: 2; 1 Bildu y 1 Aralar.*

*Batzordeak aho batez eraman du Udaleko osoko bilkurara 2013/2014 ikasturteko zahartze aktiborako ikastaroen prezio publikoak onartzen eta arautzen dituen proposamena."*

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Prezio guztiak bezala hauek ere osoko bilkuratik pasatu behar dira, prezio sinbolikoak dira, eta batzordean adostutakoak. Prezio hauen helburua kurtsoak duten balioa nabarmentzea da, hau da, jendea kontziente izan dadila, kurtso batera doanean, horrek balio bat duela.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, **2013-2014 Ikaskurteko zahartze aktiborako ikastaroen Prezio Publikoak ONARTU EGIN DITU**, eta gorago jasotako diktaminaren testua akordio bihurtzen du.

*Esta Comisión eleva al pleno de la Corporación la propuesta de aprobación y regulación de los precios públicos de los cursos de envejecimiento activo para el curso 2013/2014."*

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Como todos los precios, estos también deben someterse al dictamen del Pleno, aunque en este caso se trate de precios simbólicos acordados ya en la Comisión. Lo que se pretende conseguir mediante estos precios es destacar el coste del curso, para que la gente que participa en un curso sea consciente que todo ello conlleva un coste.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda **APROBAR** los **Precios Públicos de los Cursos de Envejecimiento Activo para el curso 2013-2014**, según detalle que figura en el dictamen anteriormente transcrito.

**SEI.- UE-5 ETXEZURIOSTEKO KALE BERRIAREN IZENDAPENA PROPOSAMENA. (HIRIGINTZA, OBRAK ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2013 IRAILAREN 18KOA).**

Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza Batzordearen 2013ko irailaren 18koa, irizpenaren berri ematen da:

*"Batzorde honetara UE-5eko kale berri bat izendatzeko proposamena ekarri da, 634 errepide-naziola eta Galtzareta kalea, eta Ikastola eta Pinondo plaza 5 zenbakiaren artean; proposamena ETXEZURIOSTE AUZOA izan da.*

*Presidenteak bozketa egiten du eta hurrengo emaitzak lortzen dira:*

*ALDE: 4; 3 (EAJ/PNV) eta 1 (BILDU).*

**SEIS.- PROPUESTA DE DENOMINACIÓN DE NUEVA CALLE EN UE-5 ETXEZURIOSTE. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO, OBRAS Y VIVIENDA DE 18 DE SETIEMBRE DE 2013).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Vivienda en sesión de 18 de Setiembre de 2013, del tenor siguiente:

*"Se presenta a esta Comisión propuesta de denominación de una nueva calle en la UE-5, entre la Nacional 634 y, Galtzareta kalea y; Ikastola y Pinondo plaza 5, como ETXEZURIOSTE AUZOA.*

*La Presidenta pone a votación la propuesta, dándose el siguiente resultado:*

*VOTOS A FAVOR: 4; 3 (EAJ-PNV) y 1 BILDU.*

*KONTRA: 0.*
*ABSTENTZIOAK: 5; 1 (EAJ-PNV), 2 (PSE-EE (PSOE), 1 PP eta 1 ARALAR.*

*Proposamena Osoko Bilkuran aurkeztuko da."*

* Idazkari Orokorrak **Sorarrain Tolosa jauna**: Planeamenduko ordezko arauen eta bere garaian onartutako xehetasun ikerketaren arabera, urbanizatu egin den 5. EU-Etxezurioste exekuzio-unitateko emaitza lursailetara sartzeko kaleez ari gara; lursail hauetan etxebizitza familiarrak eta txikiak eraikiko dira eta sarbidea hiri barruko bide-eraztunetik izango da.

Bide-eraztun hau udalerriko gainerako guneekin egongo da komunikatuta, alegia, Momotxotik Sanagustinaldera doan bidean zehar Kaltzareta kaleko aldapatik Kurutziaga Ikastolako sarbidean zehar. Beraz eremu autonomo batez hitz egiten ari gara, ez kale ez etorbide izaerarik ez duena eta dentsitate baxuko partzelak batu eta bizitegi auzo berri baten izaera duena.

Etxezurioste hitzak, Durangoko toponimia ikerketaren egilearen oniritzia jasotzen duen txostena dago eta, bestalde, Euskara teknikariaren txostenaren arabera, egokiagoa deritzo "auzunea" terminoa erabiltzeari, "auzoa" terminoaren kaltetan, izan ere, honako hau landa edo baserri jarduerari lotuta baitago.

Prozedurari eta eskumenari dagokionez, esan, dagokion batzorde informatiboak aztertu ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari dagokiola erabakia hartzea gehiengo soilez. Proposamen honek 2013ko irailaren 18an burututako Hirigintza batzordearen aldeko irizpena jaso zuen.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Landabidea Aranburu jaunak (Bildu)**: Behingoagatik udalaren enkarguz egindako txosten bat kontutan hartu da eta lanari berari bere funtzioa eman zaio. Informe hau erabiltzen hasteko ordua

*VOTOS EN CONTRA: 0.*
*ABSTENCIONES: 5; 1 (EAJ-PNV), 2 (PSE-EE (PSOE), 1 PP y 1 ARALAR.*

*Elevándose al pleno de la Corporación la citada propuesta."*

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: En virtud de lo establecido en las Normas Subsidiarias de Planeamiento y los resultados del trabajo de investigación llevado a cabo en su momento, el tema ahora en cuestión son las calles de acceso a los terrenos resultantes de la unidad de ejecución UE 5-Etxezurioste, en los cuales está proyectada la edificación de viviendas familiares y de pequeño tamaño, cuyo acceso se efectuará a través del anillo vial del casco urbano.

Este anillo vial estará comunicado con los demás espacios del municipio, por el camino que va desde Momotxo a Sanagustinalde, desde la cuesta de la calle Kaltzareta, a través del acceso a la Ikastola Kurutziaga. Por lo tanto, estamos hablando de un área autónoma, sin condición de calle ni de avenida, destinada a unir parcelas de baja densidad, en un barrio de nueva creación de carácter residencial.

Su denominación, Etxezurioste, se encuentra recogida en un informe que cuenta con el visto bueno del autor del estudio toponímico; asimismo, en virtud del informe del técnico de Euskera, en este caso, el término "auzunea" es más adecuado que el de "auzoa", ya que se trata de una parcela asociada en su origen a actividades rurales o agropecuarias.

En lo que respecta al procedimiento y a la competencia, tras el análisis en su correspondiente comisión informativa, ahora le corresponde al Pleno del Ayuntamiento ofrecer su resolución por mayoría simple. Esta propuesta cuenta con el dictamen favorable de la Comisión de Urbanismo reunida el 18 de septiembre de 2013.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Landabidea Aranburu (Bildu)**: Por fin se ha tomado en consideración un informe efectuado por encargo del Ayuntamiento, y por fin el estudio realizado ha podido cumplir con su función.

izan da.
Asko poztu gara udalaren toponimia ikerketa lana zuzenean erabili izana, eta hain zuzen ere, Alberto Erraztiri bere iritzia eskatu izana. Espero dugu, etorkizunean, kaleak izendatzerako orduan irizpide bera jarraitzea.

Ya era hora de que se empezara a utilizar este informe. Nos alegramos profundamente de que por fin se haya recurrido directamente al estudio toponímico el Ayuntamiento y se le haya solicitado a Alberto Errazti su opinión. Esperemos que en adelante se siga este mismo procedimiento para futuras designaciones.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Bakarrik esan behingoagatik ez, baizik eta, lau kaleetan izan ezik, toponimia ikerketa hau erabili izan dela kaleak izendatzerako orduan, iraganean, orain eta etokizunean ere erabiliko da. Lana ez dago kaxoi baten galduta, hainbat kalek bere izena aldatu dute lan horren ondorioz, beraz, "behingoagatik" baino, "baita oraingoan ere" esan beharko litzateke.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Únicamente quisiera decir que "por fin" no, ya que, salvo en el caso de cuatro calles, este estudio toponímico ha sido siempre utilizado, se sigue utilizando y se seguirá utilizando. El estudio no está perdido en un cajón; es más, son varias las calles a las que se les ha cambiado el nombre basándose en este estudio, por lo que nada de "por fin"; más bien lo que se debería decir es "nuevamente".

* **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu)**: Bakarrik gogorarazteko, burura etortzen zaidan azkeneko kale izena Juan Mari Pedrosa da eta hor ez zen lan hori kontuta hartu, Leizaolaren kasuan ere ez. Hau da, batzuetan gomendio hori jarraitu da baina beste batzuetan ez, eta aipatu beharra dago praktikan jarri den kasu batzuetan ere akatsekin jarri izan dela, hau da, izendatzeko kaleari baino kale paraleloari jarri izan diozue izena.

* Concejal **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu)**: Simplemente quisiera indicar que la última designación que recuerdo fue la de la calle Juan Mari Pedrosa, en la cual no se tuvo en cuenta el estudio, al igual que tampoco se tuvo en cuenta en el caso de la calle Leizaola. Es decir, que esa recomendación se sigue según convenga, ahora sí y ahora no; es más, en las ocasiones en las que finalmente sí se ha tomado en consideración, se han cometido fallos como designaciones incorrectas, habiéndose impuesto el nombre correspondiente a una calle a su paralela.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: EAJren izenean neuk erantzungo dut. Begiratu ezazue zenbateraino izan dugun kontuan, ezen, ni neu konturatu nintzen irizpidea "auzunea" eta "auzoa" ez zirela gauza bera, eta egokiena "auzunea" deitzea zela. Goitik behera irakurri dut toponimia-ikerketa hori eta, antza denez, batzordean ni neu bakarrik konturatu nintzen esandako horretaz; beraz, kontuan hartu bai, baina hori ez da absolutu bat, azken baten, plenoa da erabaki behar duena. Bozkatu egingo dugu.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Responderé yo misma en nombre del PNV. Pensad hasta dónde hemos tenido en consideración este informe, que yo misma me percaté de que los términos "auzunea" y "auzoa" no eran sinónimos y que en este caso lo más adecuado era adoptar el término "auzunea". He leído el estudio de toponimia de principio a fin, y por lo que parece en la Comisión solamente yo me percaté de ese matiz; por lo tanto, sí que lo tenemos en cuenta, pero tampoco se trata de un absoluto, ya que, a fin de cuentas, es el Pleno quien debe tomar las decisiones. Votemos.

BOZKETA egin ostean.

PREVIA votación realizada al efecto.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, honako akordio hau hartu du: UE-5ean, 634 errepidearen eta Galtzareta kalearen artean eta Ikastolaren eta Pinondo plaza 5aren artean dagoen kale berria **ETXEZURIOSTE AUZUNEA izendatzea**.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda **denominar** la nueva calle ubicada en la UE-5, entre la Nacional 634 y Galtzareta kalea, e Ikastola y Pinondo Plaza nº 5, como **ETXEZURIOSTE AUZUNEA**.

**ZAZPI.- URRIKO OSOKO BILKURA EGUNA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Eskaera bat dago urriko ohiko plenoa urriaren 29an izan beharrean astebete aurreratzeko, hau da, urriaren 22ra pasatzea. Bozkatu egingo dugu.

- Aldeko botoak: HAMAIRU, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 3 Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Aralar.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, hurrengo osoko bilkura urriaren 29an izan beharrean **urriaren 22an** izatea onartu du.

**SIETE.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA FECHA DEL PLENO ORDINARIO DEL MES DE OCTUBRE.**

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Se ha solicitado que el pleno ordinario del 29 de octubre sea adelantado una semana y se celebre el 22 de dicho mes. Votemos.

- Votos a favor: TRECE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: OCHO, 6 de Bildu y 2 de Aralar.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda adelantar la sesión plenaria ordinaria del mes de **Octubre** del día 29 al **22**.

**ZORTZI.- BILDU ETA ARALAR TALDEETAKO BOZERAMAILEEK IZENPETURIKO MOZIOA, PERI TRENBIDEAREN ALDAKETAREN GAINEKOA (SARRERA ERREGISTROA: 2013010276, 2013KO IRAILAREN 19KOA).**

Bildu eta Aralar Taldeetako Bozeramaileek izenpeturiko mozioa, PERI Trenbidearen aldaketaren gainekoa. Sarrera Erregistroa: 2013010276, 2013ko irailaren 19koa eta honako hau dioena:

*"ZIOA:*

*PERI trenbidearen behin betiko agiriaren onarpenak, jasotzen du, 1.000 m2 lursaila (S-5), eraikin erlijioso bat egitera zuzendua*

**OCHO.- MOCIÓN SUSCRITA POR LA REPRESENTACIÓN DE BILDU Y ARALAR RELATIVA A LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PERI DEL FERROCARRIL. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2013010276 DE 19 DE SETIEMBRE DE 2013).**

Dada cuenta de la Moción suscrita por la representación de Bildu y Aralar, relativa a la modificación puntual del PERI del Ferrocarril, con Registro de Entrada nº 2013010276 de 19 de Setiembre de 2013, del tenor siguiente:

*"EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:*

*La aprobación definitiva del documento PERI ferrocarril recoge que se destinará un suelo de 1.000 m$^2$ (S-5) para la construcción de un edificio religioso, esto es, para la*

*izango dela. Zehatzago esanda Bilboko apezpikutegiak eraiki nahi duen eliza bat.*

*Lehenbizi, ez zaigu zuzena iruditzen, jabego publikoa duen lursail bati erabilera pribatua ematea. Interes publikoaren aurka joateaz gain, ez dator bat lur-zoruaren eta hirigintzaren 2/2006 Legeak jasotzen duenarekin. Aipatu Legeak, tokiko sistemen sarea osatzen duten elementuak biltzerako orduan, zera dio: Jabetza publikoko ekipamendu kolektiboak; hezkuntza, kultura, kirol, osasun, administrazio zein sorospen arloko erabilera zuzenduak direnak.*

*Aitzitik, jabego publikoko lursail bat erabilera pribatura zuzendua izango da. Hori gutxi balitz, esku pribatu hauek Bilboko apezpikutegiarenak izatea proposatzen da. Durangon eraikin ugari dauzkan -hauetako asko utzik- entitate pribatua. Beraz, ez dago interes orokorraren mesedetan, PERI trenbideak egiten duen lur-eremuaren erreserba hau oinarrituko lukeen inongo arrazoirik.*

*Honegatik guztiagatik,*

*Durangoko udalbatzak onartzen du:*

1. *PERI trenbidearen aldaketa zehatza abian jartzea. S-5 lursaila ekipamendu erlijioso bati esleitzeak ez baitu inongo arrazoibiderik.*

2. *Aipatu lursailaren erabilera finkatzerako orduan, hirigintza batzordean, herrian dauden ekipamenduen gabeziei buruz eztabaida sustatu. Uste baitugu, gurtza erlijiosoa baino premia larriagoak daudela."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

*construcción de una iglesia por parte del Obispado de Bilbao.*

*En primer lugar, no nos parece apropiado destinar una parcela de titularidad pública a uso privado. Además de ir en contra del interés general, no es acorde con lo que establece la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo. La citada ley recoge los siguientes elementos como integrantes de la red de sistemas local: Equipamientos colectivos de titularidad pública; los destinados a usos educativos, culturales, deportivos, de salud, administrativos y de asistencia.*

*Sin embargo, y en contra de lo establecido, se destina un suelo de titularidad para uso privado. Y, encima, se propone que el beneficiario privado sea el Obispado de Bilbao, esto es, una entidad privada que cuenta con cantidad de edificios en Durango –muchos de ellos vacíos-. Resumiendo, desde el punto de vista del interés general, no hay razones que justifiquen la reserva de este terreno del PERI ferrocarril.*

*Por todo ello,*

*La Corporación municipal de Durango aprueba lo siguiente:*

1. *La puesta en marcha de la modificación parcial del PERI ferrocarril, puesto que no tiene sentido que se adjudique la parcela S-5 a un equipamiento religioso.*

2. *Fomentar un debate relativo a las carencias de equipamiento de nuestro municipio, en la comisión de urbanismo, con el fin de determinar el uso a dar a la citada parcela, porque creemos que existen necesidades más apremiantes que la adoración religiosa."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: 2006. urtean hasierako onarpena eman zitzaion PERI-Ferrocarril bezala ezagutzen den operazio urbanistiko horri. Garai hartan erabaki zen 1.000 metro$^2$ erabilera erlijiosorako gordetzea. Lurzoru hori, bere osotasunean, publikoa da, eta 1000m$^2$ horiek doan irteten ziren udalak jaso behar duen lurzorutik; horrelako operazio guztietan udalak jasotzen duelako doako zesioak ekipamenduak eraiki ahal izateko.

Garai hartan, PERIa tramitatzen zegoenean, apezpikutegiak zuzenketa bat aurkeztu zuen eta Eusko Alderdi Jeltzaleak onartu egin zuen eta erabaki zen PERI horretan 1.000m$^2$ eliza bat edo ekipamendu erlijioso bat egiteko destinatzea, alegia, horretarako gordetzea.

Zesioak horretarako behar dira, doan jasotzen diren zesioak ekipamenduak egiteko bideratu behar dira eta ekipamenduaz ari garenean, uste dugu, Durangon dauden beharrak ikusita, ez dela egokiena ekipamendu erlijiosoak egitea. Behar handiagoak daude kultura erabilerarako, gazteriarentzako edo, legeak ahalbideratzen duen bezala, etxebizitzak egiteko, alegia, dotazioak erabili ahal dira etxebizitza zehatz batzuk egiteko, hau da, epe mugatua daukaten errotazioko etxebizitzak eraiki ahal izateko.

Uste dut arlo horietan behar nahikoak daudela 1.000 m$^2$ erabiltzeko, eta ez dugu inondik inora uste erlijio erabilera lehentasunezko erabilera izan behar denik. Lehenengo eta behin, apezpikutegiak egindako zuzenketa baten ondoren egindako modifikazio bat izan zelako, eta uste dugu erakunde pribatu batek jabetzak baldin baditu Durangon, erakunde hori, apezpikutegia dela eta, gainera, eraikinetako batzuk hutsik daude. Erabilera erlijiosoa duten eraikinak zenbait daude Durangon hutsik daudenak: Salesak edo Santa Susana, esaterako. Gainera espekulatzeko erabiltzen dira. Ez dut uste beharrezkoa denik aipatzea zer gertatzen ari den Salesen kasuan edo, bere garaian, Santa Susana hutsik geratu zenean, zein izan zen apezpikutegiaren eskaera.

Horregatik uste dut 2006. urtean nahiko agerian geratu zela alderdi batek interes pribatua interes publikoaren gainetik jartzen zuela, Eusko Alderdi

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: En 2006 se acordó la aprobación inicial a la operación urbanística conocida como PERI-Ferrocarril, y, por aquel entonces, se decidió guardar 1.000 metros cuadrados para uso religioso. Se trata de un terreno público en su totalidad y esos 1.000 m$^2$ se obtenían de forma gratuita del terreno que debe adquirir el Ayuntamiento, y, en esta clase de operaciones en las que el Ayuntamiento recibe cesiones gratuitas, estas deben utilizarse para la construcción de equipamientos.

En el momento en el que se estaba tramitando el PERI, el obispado presentó una enmienda, aceptada por Partido Nacionalista Vasco, a través de la cual se decidió que 1.000 m$^2$ de dicho PERI fueran destinados a la edificación de una iglesia o un equipamiento religiosos.

Para ello, resulta necesario que haya cesiones, ya que las cesiones que se adquieren de forma gratuita deben destinarse a equipamiento, pero, en vista de las necesidades existentes en Durango, dudamos de que destinarlos a equipamiento religioso sea lo más acertado; y es que existen necesidades bastante más apremiantes en sectores como el de la cultura, la juventud, o tal y como permite la ley, para la edificación de viviendas, ya que las dotaciones pueden ser utilizadas para cierta construcción de viviendas, como viviendas en rotación con plazo limitado.

Creo que se tratan de ámbitos con indudables necesidades, en los que emplear esos 1.000 m$^2$ resultaría siempre acertado; sin embargo, no consideramos que el uso religioso constituya ni mucho menos una prioridad; en primer lugar, porque se trata de una modificación efectuada como consecuencia de una enmienda presentada por el obispado, y es que si hay una institución privada con propiedades en Durango, esa es el obispado, estando, además, algunos de sus edificios vacíos. En Durango hay varios edificios de uso religioso vacios, como el de las Salesas, Santa Susana, etc. Y además se especula con ellos. Creo que no es preciso recordar qué es lo que está sucediendo en el caso de las Salesas o qué es lo que solicitó el obispado, cuando el convento de Santa Susana quedó vacío.

Con todo ello, creo que en 2006 quedó en evidencia que cierto partido, el Partido Nacionalista Vasco, anteponía el interés privado al interés

Jeltzaleak alegia. Uste dugu ia 7 urte pasatu diren honetan badela errakuntza hori zuzentzeko ordua.

Garai hartan Alderdi Popularraren abstentzioarekin nahikoa zen hori ateratzeko, momentu honetan gehiengoak desberdinak dira eta uste dugu zenbakiek ematen dutela errakuntza hori zuzentzeko. Horregatik hain zuzen, Bildurekin batera, mozio hau aurkezten dugu osoko bilkura honetan.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP):** Ez dakit ondo zer esan mozio honi buruz, ez dakit garaiz kanpokotzat jo edo antzeko zer beste esan, baina izugarri bitxia iruditu zait gaurkoan mozio hau aurkeztea, kontuan hartuta duela astebete eskas Hirigintza Batzordeko kide guztiak ados geratu ginela Bulego Teknikoan nork bere ekimenak, proposamenak eta ideiak aurkeztu ahal izango genituela, oraingo eraikinak eraitsitakoan libre geratuko diren lursailetan zer egin daitekeen erabakitzeko.

Era berean, ez dut ulertzen gai honetan ezjakinarena egitea, Udalbatzako kide guztiek ondo baino hobeto baitakigu lursailaren titularra ez dela Durangoko Udala, Eusko Jaurlaritza baizik, gogoko izan zein ez. Akordio hori Bilboko artzapezpikutzaren eta Eusko Jaurlaritzaren artekoa da, eta Durangoko Udalak ez du horretan zerikusirik.

Joan den asteazkenean adostu genuenez, ekarpenak egiten hasiko gara, eta orduan ikusiko dugu zer proposatu diezaiokegun Eusko Jaurlaritzari —proposatu; ez exijitu—. Beraz, ez da hau eztabaida honi heltzeko unea, auzi hau ez baitago Durangoko Udalaren esku. Horrenbestez, kontrako botoa emango dugu guk.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Lehenik eta behin, bat gatoz guztiz mozio honetan eskatzen denarekin. Zegokion unean ere esan genuen, eta gaur ostera ere errepikatuko dugu: ez zaigu ondo iruditzen gune publiko bat jarduera pribatu baterako erabiltzea, are gutxiago kontuan izanda jarduera pribatu horrek ondo beteta dituela bere premiak. Politikagintzan, herriaren beharrizanei eman behar diegu lehentasuna, eta, une honetan, izaera orokorreko beste ekipa-

público. Han transcurrido 7 años desde entonces, por lo que ya es hora de enmendar los errores cometidos.

En aquel momento, la abstención del Partido Popular era suficiente para sacar adelante esta iniciativa; hoy por hoy el juego de mayorías ha cambiado, y creo que los números nos brindan la oportunidad de corregir este error, y es por ello por lo que presentamos ante el Pleno esta moción junto con Bildu.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: No se si tildar esta moción de extemporánea o un calificativo similar, porque me extraña muchísimo que se presente esta moción a día de hoy, cuando hace menos de una semana en la Comisión de Urbanismo quedamos todos los miembros de esa comisión en que teníamos la posibilidad de proponer a la Oficina Técnica iniciativas, propuestas, ideas... sobre qué se puede hacer en el terreno que va a quedar libre después de la demolición de los edificios existentes.

Por otra parte, no entiendo que se aparente desconocer algo que es conocido por toda la Corporación, es decir, que la titularidad del terreno no es del Ayuntamiento de Durango, es del Gobierno Vasco, nos guste o no. Y este acuerdo entre el obispado de Bilbao y el Gobierno Vasco es el que es, no tiene nada que ver el Ayuntamiento de Durango.

Puesto que el miércoles pasado quedamos en que vamos a hacer las diferentes aportaciones, es a partir de ese momento cuando veamos que es lo que se le puede, esto es: no exigir sino proponer al Gobierno Vasco. No es momento de entrar en esta discusión porque no depende del Ayuntamiento de Durango. Es por ello que vamos a votar en contra.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: En primer lugar queremos decir que estamos completamente de acuerdo con lo que se pide en la moción. Ya en su día lo dijimos y hoy lo volvemos a repetir, no nos parece bien que un espacio público se destine a una actividad privada que además tiene suficientemente cubiertas sus necesidades. En política debemos de priorizar las necesidades y en estos momentos hay otros equipamientos de carácter general que son mu-

mendu batzuk askoz beharrezkoagoak dira; are gehiago, interesgarriagoak ere badira durangarrentzat.

Horiek horrela, uste dut, halaber, mesedegarria izango litzakeela eztabaida hau Hirigintza Batzordera eramatea, han adostasun-guneak topatu ahal izateko guztion artean. Bat gatoz mozioan eskatzen den horrekin, baina, era berean, garrantzitsua iruditzen zaigu indar politikoen artean ahalik eta adostasun handiena lortzea; izan ere, hasierako aldaketa, adibidez, Alkatetzak egin beharko luke, dekretu bidez. Horregatik, askoz egokiagoa iruditzen zaigu ekimena batzordera eramatea eta han lantzea.

* **Landabidea Aranburu jaunak (Bildu)**: Gaurkoan aurkeztutako mozioaren helburua PERI Ferrocarril delakoan agertzen den puntu baten aldaketa abian jartzea da.

Piliri erantzunez, gure helburua hori da, mozio honen helburua da batzordera eramatea eta han eztabaidatzea nola aldatu bere garaian hartutako erabaki bat.

Ez dugu ulertzen XXI. mendean laikotzat definitzen den estatu batean nola bideratu ahal den, udal ondarea izango dena, ekipamendu erlijioso baterako, eta are gutxiago Bilboko apezpikuari zuzenean egoztea. Jakin badakigu PERIak ez diola eskumenik ematen Bilboko apezpikuari, baina agerian uzten du Udal Gobernuaren ildo politikoa elizaren eskutik doala, eta hau benetan kezkagarria iruditzen zaigu.

Partzelazioa honela egitearen arrazoia ez da zaila aurkitzen, izan ere, udal honek Durangoko herritarren izenean hartzen ditu erabaki asko, baina herritarren beharrizanak ondo ezagutu gabe.

Horregatik osoko bilkura honi eskatzen diogu prozesu parte-hartzaileak abian jartzea. Herritarren aurrean gaur barregarri uzten gaituen erabaki bat hartu zenuten 2006. urtean. Hau berriz ez gertatzeko alternatiba bakarra herria ezagutzea da. Hasi gaitezen lanean, etorkizun gertukoan, erabakiak herritarrekin batera hartzeko.

cho más necesarios, incluso más interesantes para los vecinos de Durango.

Ahora bien, dicho esto, creo que sería interesante que este debate se trasladara a la Comisión de Urbanismo y pudiéramos llegar entre todos y todas a un consenso. Nosotros estamos de acuerdo con lo que se pide en la moción, pero sí nos parece importante que se llegue a un consenso entre el mayor número de fuerzas políticas porque para empezar lo que es la modificación inicial correspondería a Alcaldía a través de decreto. Vemos mucho más adecuado que esta iniciativa se lleve a comisión y comencemos a trabajar en ella.

* Concejal **Sr. Landabidea Aranburu (Bildu)**: Mediante esta moción lo que se pretende es provocar la modificación de uno de los puntos recogidos en el PERI-Ferrocarril.

En respuesta a la duda planteada por Pili, el objetivo de esta moción es trasladar esta iniciativa a la Comisión, para que puedan debatirse en ella las posibles formulas para la rectificación de aquella decisión tomada en su momento.

No podemos entender que en pleno siglo XXI, en un estado que se define como laico, se decida destinar una cesión que va a pasar a ser patrimonio municipal a equipamiento religioso, y aún menos que le sea directamente concedido al obispado de Bilbao. Sabemos que el PERI no le otorga competencia al obispado de Bilbao, pero sí demuestra cierta disposición política por parte del Equipo de Gobierno hacia la Iglesia, lo cual nos resulta ciertamente preocupante.

Es fácil de entender el porqué de esa parcelación, y es que este Equipo de Gobierno toma muchas decisiones en nombre de los ciudadanos de Durango pero sin conocer convenientemente sus necesidades.

Por ello, instamos a este Pleno a que ponga en marcha un proceso participativo. Y es que en 2006 se tomó una decisión que hoy resulta evidentemente grotesca. El único modo de asegurar que algo así no vuelva a suceder estriba en conocer las necesidades de nuestro municipio. Pongámonos a trabajar, para que en un futuro cercano las decisiones las podamos tomar conjuntamente con nuestra ciudadanía.

* 5. Alkate Odea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gu ez gara eliza katolikoaren bozeramaleak eta ez gara inoiz izango eta ez gara gu izango eliza katolikoaren alde egingo dugunok.

Guk ere uste dugu eztabaida hau batzordean izan beharko genukeela, izan ere, bertan baikaude PERI honen inguruan eztabaidatzen: eztabaida lasaia, eztabaida sakona, parte-hartzailea. Denok daukagu parte-hartzeko aukera eta gure ideiak plazaratzeko. Baina ez horrela, osoko bilkura batean, "a bote pronto", esaten den bezala.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Lehenengo eta behin, Alderdi Popularreko Bozeramaileak esan du berarentzat mozio hau denboraz kanpo datorrela; nik ez dakit denboraz kanpo datorren baina argi geratzen dena da berak esandakoa guztiz lekuz kanpo dagoela, edo hirigintza arauak ez ditu ezagutzen edo ez dut ulertzen zertara datorren esandakoa.

Gauza desberdinez ari garenez, ikusi besterik ez dago PERIren fitxa urbanistikoa: han partzelazio bat dago eta, beste figura urbanistikoetan bezala, erabilera desberdinak daude, etxebizitza-erabilera, sistema generalak, sistema lokalak eta "gune libreak" deiturikoak. Gu ari gara sistema lokal baten inguruan eta hirigintza batzordean hasi den eztabaida ETSk eskatuta ez da sistema lokalen inguruan, baizik eta "gune libreen" inguruan, alegia, nolako erabilerak edo nolako jarduerak ezarri daitezkeen leku horietan. Sistema lokal bat aldatzeko udaletxeak hartu behar du erabakia, eta pleno honi dagokio sistema lokal honen erabilera aldatzea.

2006. urtean, sistema lokal konkretu batean, S-5 deiturikoan, hauxe erabaki zen: "Tiene uso de equipamiento religioso para edificación de una parroquia del obispado de Bilbao, con una altura de dos plantas sobre rasante y máximo de 800 m$^2$ construidos". Hau da gaur egun PERI Ferrocarrilen fitxa urbanistikoan agertzen dena. Eta hori da sistema lokal bat eta hori aldatzeko osoko bilkura honek aldatu behar du.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros no actuamos de portavoces de la Iglesia católica, y nunca lo haremos. Tampoco somos sus defensores.

Por otra parte, también nosotros pensamos que este debate debería trasladarse a la Comisión, en la que ya estamos trabajando en este PERI, para poder llevar a cabo un debate sosegado, profundo y participativo, donde todos tengamos la oportunidad de participar y presentar nuestras ideas, y no de esta manera, en un pleno, a bote pronto.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: En primer lugar, quisiera contestar al Portavoz del Partido Popular, quien ha calificado esta moción de extemporánea; no sé si la moción está fuera de tiempo, pero lo que sí que ha sido evidente es que sus palabras sí que han estado fuera de lugar, y es que, o no conoce las normas urbanísticas, o no entiendo a qué viene lo señalado en su intervención.

Puesto que hablamos de cosas diferentes, no hay más que recurrir a la ficha urbanística del PERI, donde se expone una parcelación en la que, como en otras figuras urbanísticas, se especifican diferentes usos como el residencial, sistemas generales, sistemas locales y espacios libres. Nosotros, en este caso, nos estamos refiriendo a un sistema local, pero el tema que se está debatiendo en estos momentos en la Comisión a instancias de la Red Ferroviaria Vasca no corresponde a los sistemas locales sino a los espacios libres y a los posibles usos y actividades que desarrollar en ellos. La decisión de modificar un sistema local corresponde el Ayuntamiento, y la modificación del uso sistema local corresponde al Pleno.

En 2006 se tomó la siguiente decisión respecto al sistema local S-5: "Erlijio-ekipamenduaren erabilera dauka, Bilboko apezpikutzak parrokia bat egin dezan, bi solairu altxatuta lur-arrasaren gainean eta, gehienez ere, 800 m$^2$ eraikita". Eso es lo que hoy por hoy consta en la ficha urbanística del PERI Ferrocarril. Se trata de un sistema local, y, por lo tanto, para cualquier modificación, se precisa de la aprobación del Pleno.

Baina ez dugu esaten nolako erabilera izan behar duen, horregatik esaten dugu mozioan bertan, Hirigintza batzordera eraman behar dela asuntoa. Hemen plano horren aldaketa erabakiko dugu, baina zein erabilera eman batzordean eztabaidatuko da. Guk ez dugu esaten zein izan behar den erabilera, baina argi daukaguna da erabilera erlijiosoa ez dela izan behar.

Bukatzeko, bitxia iruditzen zait entzutea Eusko Alderdi Jeltzalearen bozeramaileari eztabaida hori hirigintza batzordean eman behar dela, zazpi urte izan dutelako bertara eramateko gobernuan egon direlako eta Hirigintzako burua izan dutelako, eta ez dute eraman. Eta Alderdi Popularrari esan diodan moduan, azken finean, asuntoa osoko bilkura honetara etorri beharko da, eta aldaketa hemen egin beharko dugu.

Alderdi Jeltzailearen Bozeramaleak esan du eurak ez direla eliza katolikoaren bozeramale, baina Eusko Alderdi Jeltzalearen bozeramailea egun hartan, gaur egun Alkate andrea dena, hauxe esan zuen: “en cuanto al tema de la iglesia, lo que ocurre es que sólo la iglesia católica lo ha solicitado, si algún otro lo hubiera solicitado lo habríamos estudiado pero no ha sido así.” Egun horretan Eusko Alderdi Jeltzaleak erabaki zuen interes pribatua interes publikoaren gainetik jartzea. Beraz, oso argi geratzen da ez zutela ez kultura erabilerarik, ez hezkuntza erabilerarik ez beste edonolako erabilerarik lehenesten, baizik eta, zelan eliza katolikoak eskatu zuen 1.000 $m^2$ gordetzea, EAJ prest agertu zen horri kasu egiteko.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP):** Argi eta garbi utzi nahi dut zergatik erabili dudan “garaiz kanpoko” terminoa; izan ere, bestela zergatik adostu genuen pasa den astean gaia Batzordean lantzen jarraitzea? Baten batek udalaren lursail horretan zer egin litekeen ere aipatu du; bada, argi eta garbi gera dadila lursail horren titularra Eusko Jaurlaritza dela, ez Udala.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Alderdi Popularraren ordezkariari azaldu nahi diot lursail horren erabilera guk erabakiko dugula; zegokion unean, Osoko Bilkuraren erabakia izan zen, eta, orain, erabaki hori aldatzea eskatzen ari gara.

En esta moción, no indicamos qué uso debe otorgársele, sino que instamos a que este tema sea tratado en la Comisión de Urbanismo. Lo que se decidirá en el Pleno es el cambio del plano, y posteriormente ya se debatirá en la Comisión a qué se destinará dicha parcela. Nosotros no decimos qué uso debe otorgársele, pero sí tenemos claro que ese terreno no debe destinarse a un uso religioso.

Para finalizar, me resulta curioso oír decir a la Portavoz del Partido Nacionalista Vasco que este debate debe trasladarse a la Comisión de Urbanismo, cuando, estando como están en el Equipo de Gobierno y en la presidencia de la Comisión de Urbanismo, han tenido siete años para hacerlo y no lo han hecho. Tal y como le he indicado al Partido Popular, este asunto finalmente deberá volver al Pleno, donde habrá de efectuarse la modificación.

Según ha afirmado la Portavoz del Partido Nacionalista vasco, ellos no son portavoces de la Iglesia Católica, sin embargo quisiera recordar las palabras de la que por aquel entonces era portavoz del Partido Nacionalista Vasco y hoy por hoy alcaldesa: “Elizaren gaineko afera horri dagokionez, kontua da eliza katolikoa bakarrik aurkeztu dela; besteren batek ere eskaera egin izan balu, guk aztertu egingo genukeen, baina ez da horrela izan”. Aquel día, el PNV optó por anteponer el interés privado al interés público. Es evidente que no otorgaron prioridad a un uso cultural, a un uso educativo o de cualquier otra índole; la Iglesia católica solicitó que se guardaran esos 1.000 $m^2$ para su uso religioso, y el PNV accedió a ello.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Quiero dejar bien claro porqué me he expresado con el término “extemporáneo”; lo digo porque ¿para qué quedamos la semana pasada en seguir trabajando en este tema en la comisión? Ha habido quien ha citado lo que se puede hacer en un terreno municipal, que quede bien claro que el terreno es de titularidad del Gobierno Vasco no del Ayuntamiento.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Quiero decirle al representante del Partido Popular que la decisión de para qué va a ser utilizado es nuestra, en su día fue de este pleno, y lo que

Bide batez, gogora ekarri nahi dut une honetako premiak asetzen saiatzea dela gure betebeharra, eta aurreko erabaki hori ez dator errealitatearekin bat, Eliza katolikoak ez duelako une honetan lursail hori bereganatzeko premiarik. Nolanahi ere, nik beste proposamen bat egin nuen, alegia, gai hau batzordera eramatea proposatu nuen, adostasun zabalagoa lortze aldera. Horren gaineko azalpena jaso nahi nuke.

* **Landabidea Aranburu jaunak (Bildu)**: Ematen du denok ados gaudela mozioaren funtsarekin. Mozioaren bigarren puntuan agertzen den moduan gure helburuetako bat da Hirigintza batzordean erabakitzea zertarako erabiliko den lur hori.

Alderdi Popularreko Bozeramaileari erantzunez ematen du ez dela konturatu denok komentatu duguna, hau da, urbanizatzeko proposamenak eskatu dizkigute, eta eskatu digute espazio libreak urbanizatzeko, baina ez dena, hor dago 1000 $m^2$ lursail bat bere garaian erabaki zena elizarentzat izango zela. Udalak erabaki behar du partzela horietan zer egin.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Norbaitek esan du zazpi urte izan ditugula gai hau batzordera eramateko, baina Aralarrek ere zazpi urte behar izan ditu mozio hau aurkezteko.

Beste komentariotxo bat, Aitziber Irigorasen hitzak ez dira zuzen jaso, berak egun hartan euskaraz egin baitzuen.

Printzipioz gu prest gaude eztabaida bat zabaltzeko, baina mozioak eskatzen du aldaketa gaur onartzea. Guk eskatzen duguna da eskaera hori birformulatzea eta aldaketaren erabakia batzordera eramatea, batzordean bertan erabakitzeko zer egin daitekeen lurzoru horretan.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Uste dut argi geratu dela guk zer eskatzen dugun: gaur eta hemen onartzea sistema lokal horren erabilera aldatzea eta, bigarren puntuan, hirigintza batzordean, herrian dauden ekipamenduen gabeziei buruz eztabaida sustatzea. Ondoren, hona ekarri beharko da PERI horren aldaketa puntual bat egiteko.

se pide es una modificación. Recordar de paso que nuestro deber es velar por cubrir las necesidades que hay en estos momentos, y esto no se ajusta a la realidad, la iglesia católica no tiene en estos momentos una necesidad real de tener esa parcela. Yo había propuesto que este tema fuera a comisión para llegar a mayores consensos. Me gustaría una respuesta.

* Concejal **Sr. Landabidea Aranburu (Bildu)**: Parece que todos estamos de acuerdo con el contenido de la moción. Según se recoge en el punto número dos de nuestra moción, es en la Comisión de Urbanismo donde se debe decidir qué uso se le otorgará a ese terreno.

En respuesta al Portavoz del Partido Popular, parece que no se ha percatado de algo que ha sido ya comentado por todos: nos han sido solicitadas propuestas de urbanización, propuestas de urbanización de espacios libres, pero no de todos los espacios, puesto que existe un terreno de 1.000 $m^2$ que en su momento se decidió otorgar a la Iglesia, y es el Ayuntamiento quien debe decidir a qué destinará dichas parcelas.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Se ha comentado que hemos tenido siete años para trasladar este tema a la Comisión, pero quisiera recordar que Aralar también ha necesitado siete años para presentar esta moción.

Y otra matización, Aitiziber Irigoras no dijo concretamente esas palabras, puesto que aquel día habló en euskera.

En principio, sí estamos dispuestos a abrir un debate, pero en la moción se insta a aprobar hoy mismo la modificación, y lo que nosotros solicitamos es que se reformule esta petición para que la decisión de modificación sea trasladada a la Comisión, en la que también se decidirá sobre qué uso otorgarle.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Creo que ha quedado claro qué es lo que nosotros solicitamos: en primer lugar, que hoy se apruebe la modificación del uso de este sistema local, y, en segundo lugar, que en la Comisión se debata acerca de las necesidades de equipamiento existentes en nuestro municipio, tras lo cual, volverá a presentarse el tema ante este Pleno, para poder llevar a cabo dicha modificación puntual del PERI en cuestión.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 6 Bildu, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.
- Kontrako botoak: BI, 2 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: ZORTZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoarenb botoekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehaturiko mozioaren testua.

Finalizado el debate, la Presidencia lo somete a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: ONCE, 6 de Bildu, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.
- Votos en contra: DOS, 2 del Partido Popular.
- Abstenciones: OCHO, 8 del Partido Nacionalista Vasco.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la Moción anteriormente transcrita.

**BEDERATZI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

- Ez da inongo eskaerarik edota itaunik egiten.

**NUEVE.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

- No se produce ruego ni pregunta alguna por parte de los/as asistentes.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 18:05ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:05 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.